

JENDE LIKIDOA

Nerea Arrien



n a r r a t i b a

Arrien

JENDE LIKIDOA

Narratiba, 130

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespeneko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2021eko martxoan

Azala:

Erein

Azalaren irudia:

Judit Arrien

Maketazioa:

Itxaropena

© Nerea Arrien

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-601-6

L. G.: D 385/2021

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

Nerea Arrien

JENDE LIKIDOA



URAREN ZIKLOA

Atoian, eskutik helduta, eramaten ninduen amak eskolara. Arrasteroak potin txikia nola. Portutik pasatzean, itsaso harrotuan entzuten genituen bekerekeak. Guretzat, baserriak eta zooak uretan zeudelako. Aitak edo aitonak, itsas zabalean atunetan. Amak eta amonak, sare josten edo kontserberan.

Kresalezkoak eta porlenezkoak ziren gure gonapeak. Teilatu gainean, hondo ozeanikoa. Gatzezkoa, atmosfera. Berdinarekin igurtzia, karriketako harriak.

Anderenoak «Itsas kabra» zuen ezizena. Eta eskolako bidean, «Txitxarroa», «Barbarina» eta «txipia» agurtzen genituen; okindegian, botikan eta eliza atarian. Joan-etorri akua-tiko hartan zihoan haurtzaroa. Eskuetatik urak bezala ihes egiten zigun denborak. Urezkoak ginen. Etortzear ziren garai likidoen aldean, benetakoak.

Nautika eskola zaharreko egoitzan egin genuen bigarren hezkuntza. Portuan eman,

lehenengo musuak; eta jaietako txalupa azpietan nabastu, kalimotxo eta ozeanoa.

Ez dakit zein tranpa jarri zigun eboluzioak. Itsasotik lurrera pasatzeko urrats hartan kale egin genuen eta. Arrainak izango ginen betiko. Zakatzetatik arnasten jakin behar. Ze erremedio. Kostaldeko herri txiki baten izena zeukan gure itsasoak. Kostaldeko itsaso txiki bat zen gure herria.

Abantailen bat ere ekarri zigun gure patuak, ordea: ez dut arrain hezurrekin trabatutako inor ezagutu. Ezta euriek eta malkoek txirrist egin ez dioten azal labainik.

Olatuen soinua zuen gure errutinak. Isiltasun abisala, bakardadeak. Igargarria zen bizitza. Uraren zikloa bezala: borobil-borobila.

Eta ez zegoen haren tangentetik joaterik. Ez behintzat, kostaldeko herri txiki hartan.

LITERATURA LIKIDOA

Ezpainak margotzen harrapatu dut portaleko ispilu aurrean. Bere irudiari lotuta darama balde urdin bat. Lanbasari eusten dio ezker eskuaz, eta eskuinarekin, ezpainetako karmina mugitzen du.

—Egun on —esan diot.

—Bai, egun on.

Garbiker jartzen duen poltsiko batean sartu du ezpainetako. Balde barrura begiratu du gero, lixibaz eraturako ispilu horretan, sentitu duen lotsa desinfektatu nahi izango balu bezala. Kaleko estoldara jaurti du bere irudiz bete den ur zikina. Atzetik jarraitu dit lanbasarekin, taulatik erori zaizkidan hondar-tantak eta lurrean utzi ditudan oinatz bustiak garbitu ezinik. Lepoan begiak ditut eta martiriaren antzera irudikatu dut: bere lanaren sufrikarioaz, nire zatarkeria zurritzen. Neoprenoa zeharkatu duen irudi bat eman dit igogailuko ispiluak. Desinfektatu gabea. Zikina sentitu naiz, eta balde urdinera botatzen duen zurrusta horietako batekin dutxatzea erabaki dut. Ordurako, seigarrenean nago. Bera baino sei pisu gorago. Klasismoaren eskailera horretan igo duenaren sentsazio ziztrinarekin.

Ez daki berari buruz ari naizela idazten.

Ez daki idazlea naizela. Egia esan, gauza bat baino ez daki nitaz: nire zikinkeriak garbitu behar dituela. Hori eta, beharbada, berrogeialdian sartutako emakume bat naizela utzikeriaz janzten dena. Ispilu aurrean ezpainak margotzen ez dituen neska utzi bat. Segur aski, penagarria irizten diona.

Batzuetan, bere itxura orbangabe hori iraingarria iruditzen zait. Hain ondo lisatutako ile hori, goiko ezpainaren perfilazioa, uniformearen zuritasuna... Eraso baten antzera hartzen dut haren sortzezko garbitasuna. Ama Birjina efektu hori, munduaren lotsak estaltzera bidali duen *Garbiker* jaungoiko horren lagun. Haren alboan, hain baldar geratzen da nire utzikeria, nire bizitzako nagikeria, ezen lastima sentitzen baitut neure buruaz.

Beharbada, horregatik idazten dut hartaz. Berbaz zikinduko dudan paper zuria garbitzeko modurik izango ez duelako. Mendeku txiki bat. Mendekuzaleak baikara idazleak. Ezkutuan, era koldarrean, ordenagailu atzeko lubakitik tiro egiten dugunak. *Pan*, eta zauritu bat. «Ez, ez... ez naiz ni izan. Fikzioa izan da». Eta era berean botatzen diogu errua maitasunari, kapitalismoari edota hego-haizeari. Asko daki idazleak defenditu ezin denaz. Idazleak edo neuk. Maiz nahasten ditut paperak. Eta pertsonaiak: neu naizelakoan, bera; edota bera delakoan, neu. Istorioetako eszenak ere bai. Ispiluaren aurrean kendu dut neoprenoa, *Garbiker* uniforme zuri horren antzeko alkandora bat janzteko. Gero, ezpainak pintatu ditut. Mardulak dira; batez ere, azpikoa. Polita izan ninteke, pentsatu dut, lanean hasi behar duenaren alferkeriaz. Polita izan ninteke, baina nekatuta nago. Zertaz, zehazki, ez dakidan arren.

Muturra gorri-gorri dudala eseri naiz ordenagailu aurrean. Aldarte, berriz, urdina daukat. Lixibaz azidifikatutako haren balde horren kolorekoa. Tristeziaren *pha* zein ote den jakingo duelakoan nago. Eskuetan daraman urez betetako laborategi horri, bluesa dariolako. Enpatiazko ariketa bat eginez, Baker jaunaren diskoa jarri dut. Biniloa. Bueltaka dabilen zerbait behar dut. Nire arrainontzi tristearen arrainak bezala. Tronpetistari, hagin arteko zulotik erori zaizkio behar nituen berbak: «Bera da pasilloaren beste muturrean entzuten den pauso hotsa». Diane deitu diot.

Dianek gure etxeko bebarrua garbitzen du. Gutxi ordaintzen diote horregatik, bizilagunen bileran jakin nuen zenbat. Hala ere, Dianek eguneko ordu hoberenak eskaintzen dizkio bere lanari eta pozik dirudi... (dirudi). Kantuan aritzen da lanbasa pasatzen duen bitartean, bizilagun guztientzako dauka berba gozo bat, eta, noizbehinka, ezpainak margotzen ditu ispiluaren aurrean. Bisitan etortzen zaion mutil-lagunak eder ikustea gustatzen zaiola esango nuke. Dianek badaki ezpainak margotu gabe ere, ederra dela.

Paragrafo ziztrin batekin agortu egiten naiz. Nire buruko mobidek hitzak behar dituzte, baina ez zaizkit etortzen. Ezta bila joanda ere. Edota, datozenean, laburrak dira. Laborategiko protokoloen antzekoak. Zuloz betetako esaldiak.

Batzuetan, zulo horietatik datorrenak asetzen nau, ordea. Chet Bakerri falta zaion haginaren lekua betetzen duen bluesak bezala. Tristeziak betetzen nau. Eta hori ez da beteta egoteko modu egokiena.

Balkoira atera naiz Dianeri trama bat bilatzeko. Estoldatik behera hustu berri duen horretan aurkitu nahiko nuke.

Estoldetan itsasoa hasten dela idatziko nuke. Txirriporroa dario nire ahoari, eta poesia dezente gure zikinkeria guztia kontzentratzen duen ur horri. Baina gauza prosaikoagoek entretentzen naute: hurreratu zaion berrogeitaka urteko gizon horrek, adibidez. Bere mutil-laguna delakoan nago. Masailean muxu eman dio. Gizonarekin etorri den neskatilak batek zerbait oihukatu dio. Bebaruz kanpoko eskailerak garbitzeari ekin dio berak burua makurtuta. Marierrauskin sufrituaren antzera, lan eginez uxatzen ditu oihuka jarraitzen duen neskatilaren berbak. Ezin dut aditu esaten ari zaiona. Gizonak bitartekari lanak egiten ditu neskatilaren haserrearen eta Dianeren isiltasunaren artean. «Zu ez zara nire ama!», entzun dut azkenean. Ospa egin du neskatilak, eta gizonak atzetik jarraitu dio. Diane bebarruan sartu da. Ispiluari begira irudikatu dut; rimel beltzezko tantek balde urdineko ozeanoa txapapotez kutsatzen du.

Dianek Edurnezuriren amaordearen ispilua behar du. Besteok ukatutako arrosak botako dizkiona. Ederra dela esango dio gure bebarruko ispiluak. Balde urdineko uren islak, berriz, kultura gutxikoa dela, aldirietakoa eta ahaldundu gabea. Dianek Marierrauskin eta amaordearen arteko erdibide bat behar du.

Paragrafo kutre batek ematen dizkit deskantsatzeko lixentziak. Sare sozialetan sartzeko aitzakia. Horiek dira nire amaordearen ispiluak. «Atsegin dut» bidez elikatzen dut nire autoestimu eskasa. Disneyko printzesak konpartitzen ditugu biok. Eta hori, kontsolagarria iruditzen zait. Baina arrisksua. Klizez betetako pertsonaia bat sortzen ari naizelakoan nago.

Xehetasun bat behar dut, zerbait errealagoa. Zentzuetan kontzentratu beharko nintzateke. Begiak itxi eta igogailuaren

soinua entzun dut. Bera da. Balde urdina gora eta behera erabiltzen du pisurik pisu. Lehenengoa garbitzen du. Nasa bertikaleko bideak daroa bigarrenera. Hirugarrenean, paso egiten du, ez da inor bizi. Laugarrenean, beste zurrusta bat botatzen dio balde urdinari. Bosgarrenean, lanbasari ekinez ezker-eskuin, ezker-eskuin, barruko amorrua atera du. Seigarreneko aguretxoak zakarra sartu dio igogailuan. Zazpigarrenean, lukana ireki du. Kristalezko teilatua garbitu du; garden-garden dagoenean, berak ez beste batzuek apurtu dezaten. Gero, piti bat erre du. Ketan amestu du. Ketan amestu dugu. Asmatu behar hori. Errealitateak beti naramalako fikziora. Gure pelikula egin dugu. Bakoitzak bere pisuan. Orain, bera dago neu baino altuago. Bera da istorioaren erregina.

Dianek igogailuko maitasuna du gustuko. Gora eta behera darabilen hori. Gaur, haserrealdi bat; bihar, bakea. Barruko patiotik ikus dezakete bizilagunek: bira larregi ematen dituela sokari eusten dion poleak, umeldu egiten direla esekitokietako arropak. Kaxa mugikorrek kale egiten dio dagokion tarteari, dindili-dandala ibiltzen da barruko gorputzen dantzara. Sexuak ahalduntzen du Diane. Horrelakoetan, ostikoa ematen dio balde urdinari. Lixibaz betetako ura isurtzen da kaiolaren ertzetatik. Azpiko patioan esekita dauden arropak koloregabetzen ditu. Geu ere, kolorgeak gara haren parean. Hitsak. Dianek oraindik ez daki inbidia dela lixibarik boteretsuena. Diane xaloa da.

Ez naiz gai izan. Berriz ere, kale egin diot zerbait errealista idazteko ahaleginari. Baina gezurretan nabilenean, gehiago idazten dut, sueltoago sentitzen naiz. Gezurrek ahalduntzen

naute ni. Hori da. Gezurretan dabilenaren estresa darie nire ipuinei. Beti koartada baten beharra, justifikazio bat. Sinesgarritasuna galtzen dut puntu eta jarrai bakoitzean. Irakurlea ez da nitaz fida. Autoz doan fikzioa da niretzat autofikzioa. Konturatu orduko, ihes egiten dit, azkar-azkar. Asmatuaren asmatuz nitaz ahazten naiz eta zientzia-fikzioan bukatu dezaket. Edo surrealismoan, lasai-lasai. Igogailuko maitasuna... pelikuleroagorik?

Idatzitakoa berrirakurri dut. Ez dut gustuko. Momentu batetik bestera galtzen dute lekua nire berbek. Izatez, gertatu izan zait argitaratu berri dudan liburu bat gorroto izatea. Hasieratik amaierara aldatuko nituzkeen hitzak defendatu beharra. Maitasuna likidoa bada, politika likidoa bada, teknologia likidoa bada... nola ez da literatura izango? Odola, ura, izerdia, malkoak badario. Eta iritzi aldakorrak. Eta gezurrak. Barra-barra. Hori guztia da Diane. Hori guztia naiz ni. Gaur, ordea. Auskalo, bihar.

Googlen saltseatzen hasi naiz. Bakerrek Dianeri egin zion diskoaren bila nabil. Letrak irakurri nahi ditut, haren-tzako pertsonaia bat aurkitu. Bitartean, munduaren ardatza mugitu dela jakin ahal izan dut. Dagoeneko ez omen dugu inklinazio berberaz bira egiten. AEBetako oilo batzuek azeri bat mokoka hil dutela ere enteratu naiz. Gauzek aldatzeko hartu duten abiadak kikildu egin nau, moteldu, nolabait. Eta dagoeneko ahaztu zait Bakerren diskoa. Nire erreten-tzio ahalmen txikia eskastu egiten du ordenadoreak. Irudien bonbardaketa, informazioaren demasa... Ideiek ihes egiten didate atzamar tarteetatik. Aingura bat behar dut. Oraindik balde urdinaren gainazalean nabil, eta hondoa ukituko duen

beruna falta zait. Kristalak zapaltzeko beldurrez idazten dut. Badakit kristalak zapaldu behar direla, odoleztatu. Testua zikindu eta gero, orraztu. Baina zer orraztuko du ilea korapiloz beteta ateratzen den batek? Alderik friboloena nabarmenduko dute, eta nik arrazoiak emango dizkiet.

Tabardoa hartu eta banoa etsita. Zaran edo holakoren batean konpentsatuko dut porrotaren zuloa. Gauean, Mairekin geratuta nago aspaldiko partez, eta, beharbada, beste norbaiti deituko diot gero. Ondo etorriko zait traputxoren bat.

Zakarra utzi dio bosgarrenekoak igogailuan. Plastikozko poltsa urdin batean bidaltzen dizkio kakaz betetako fardelak. Bera jabetu arte, igogailuan gora eta behera ibiltzen da poltsa. Askotan, likido lingirdatsu bat dario eta zoruan itsatsita geratzen da. Bigarrenean sartu den txakurrak txupatu egin du, jabea Dianeren gaitasun ezaz kexatzen den bitartean. Likido zikinagoa dario honi ahotik, ordea (gorroto ditut igogailuko iritziak). Igogailutik atera baino ez gara egin, eta beheranzko kanino baten isurketa ikusi dugu. Jabeak mugikorrari so jarraitzen du. Txakurraren kaka baino «*likedoagoa*» den sare sozial bati kateatuta.

—Barkatu... —esan diot, igogailuko isuriaz kexatu berri denari.

—Ene, ez naiz konturatu —eta barretxo bat bota dio Dianeri—. Garbitu dezakezu, mesedez? —esan dio, eta mundu «*likedoari*» so jarraitu du, hau edo kontrakoa bihotz digital berberarekin epaitzen.

Dianeren lanbasaren patua ez diot inori opa. Haren tentakuluek irentsi dute kaka. Gero, balde urdineko uretan

desagertu da. *How deep is the ocean?* Berriro Chet etorri zait burura. Hondo ozeanikoaren sakontasuna egotzi diet baldeko urei. Behe-jotze abisala gizakiarena. Ezin da beherago jaitsi.

Dianeri zuzendu natzaio. Bekain bitartea zimurtuta:

—Ez daukazu zertan zuk garbitu. Ez al diozu ezer esango? —Amatasun klasista bat atera zait. Ez naiz konturatu halakoa naizenik.

—Zureak ere garbitzen ditut. —Bitsa dario bere baldeari. Lanbasa astintzen du Federiciren sorginak bezala. Lotsatuta nago. Eta jarraitu behar duela sumatzen dut—. Polita zara, probetxu gehiago atera beharko zenioke zeure buruari —eta baldeko ura aurpegira bota didala iruditu zait. Antartida izoztu osoa. Oraingoan, lanbasa baldearen barruko marmoka bat da. Itsaso zikin horretako izaki gardena. Beraren antzekoa. Ez diot ezer erantzun, elkarrizketaren sigi-sagak nokeatu egin nauelako.

Diane ez da uste nuena.

Bigarrenez aurkitu naiz ispiluaren aurrean aste baten buruan. Ez da batere ohikoa. Kamiseta zuri bat dut soinean. Princeton edo Yaleko uniformeetan antzekoa. Bakerrek ere jartzen zituen halakoak eta taxuzko mutikoaren itxura ematen zion, heroinazale porrokatua izanik. Beraz, neuk ere, nolabaiteko lizentziak hartu ditut neskabila zuri bat bezala janzteko, barrutik beltza banaiz ere. Norbait imitatzen nabilelakoan nago, eta norbait hori ez da Baker jauna. Ezpainak pintatu ditut, granatez. Sentsazio berriak sortzen dizkit. Sexualak. Ernalkuntzarako prestatzen den *labiata* espezieko lore gorri bat naiz. «Polita naiz, Diane? Benetan?». Ilea

lixaatzea gehiegizkoa iruditu zait, baina rimela jarri dut, gauaren bukaeran negar egiten badut, Diane bezala egin nahi dudalako.

Mai zain daukat. Harritzekoa da nola moldatzen naizen edonora berandu heltzeko. Conversak solte noa. Zapatilak lokarritzeko makurtu naiz igogailu barruan. Lixiba-usaina dario zoruari. Arnastu egin dut barru-barruraino Dianek utzi duen usain hori. Metamorfosi bat pairatzen ari naiz. Zerbait falta zait esku artean; balde urdin bat ote? Horren faltan, betiko tristura urdinak jarraitu nau atzetik.

Mai zain daukat italiar jantetxean. Bere bizitza Excel taula baten bidez kudeatzen duen emakumea ez da inoiz berandu heltzen. Maindire koloredun ohe batean lo irudikatu ditut haren semeak. Senarra, sofaren gainean, Mai noiz etorriko. Etxea txukundua eta argiak itzalita. Badakit Maik ere neurean imajinatu dituela ezkongabearen katua, ohe gaineko arropa anabasa eta, beharbada, askatasun haizea. Hala ere, ez lituzke nire giltzak bereengatik trukatu.

—Zelako guapa! —Arraro egin zaio nire piura antza denez.

—Eta zu! —Baina perfektuegi orraztuta daukan ile horri hego-haizea falta zaio. Eta sujetadoreetako parpailei, tarratada pare bat.

—Norbaitekin geratu zara gero, ala? —eta hasi gara galdera aspergarriekin—. Rokeroa ala Gari Drake?

—Gutxien maite nauenarekin —erantzun diot zintzo.

—Siziliar puta hori berriz ere. Antxoa gazitua baino si-kuago utzi zintuen eta! —Mairi bere alde politena atera diodala sentitu dut: Getariako herri horrek eman dion berbaera

lotsagabea eta herrian antxoak burugabetzen zituzten siziliarrekiko herra betierekoa. Eta bai, arrazoa dauka: kontserba kale luzeak dira nire maitasun istorioak. Siziliarrez betetako kontserba kale luzeak. Harenak ere bai. Baina Maik ez luke horrelakorik sekula onartuko.

—Autoestimatu pixka bat izan beharko zenuke —eta bla-bla-bla luzean utzi dut Mai, atetik sartu berri delako bera. Diane. Hanketara itsasten zaizkion praka batzuk daramatza. Takoidun zapata oso altuak. Orein-kume jaioberri batena dirudi haren ibilera hauskorrak. Lasaitua hartu dut erori gabe eseri denean. Betiko gizona dauka ondoan, oraingoan, alaba barik. Marierrauskin baino amaorde traza gehiago hartu diot. Bambi efektuaz seduzitzen duen ipuineko gaiztoa. Begietan daraman tona bat rimelak betazalak astuntzen dizkio. Halako soslai elegante batez erortzen zaio begirada. Ardoa edaten dute eta espagetiak jan. Disneyko beste ipuin batean bezala. *Dama eta arlotea*. Eta beharbada, horregatik, *damatuegi* ikusi dudalako edo, iruditu zait Dianek ahalmenak galdu dituela. Horregatik edota, balde urdin bati helduta ikusi ez dudalako. Nolakoak garen idazleak... zein azkar egiten diguten kale pertsonaiek. Eta gure memoriak. Baina ogi gogorra da oroimena. Beti da gozoagoa aurreko eguneko. Segur aski, bihar ez zait gustatuko orain buruan idazten nabilen hau.

Bukaerara arte edan dut edalontzi luzeko ardo guztia. Badaukat egonezin bat. Ulertu ezin dudan zer hori. Gaztetan, hutsunea betetzeko edaten genuen. Gaur, ez naiz hain gaztea, ordea. Jatetxeko mahai guztietan botila bat ardo ikus-teak kontsolatu nau. Hori izango da; denok dugula minen

bat. Baina planetek bira egiten jarraitzen dute, ezer gertatu-ko ez balitz bezala. Suposatzen dut horrek husten gaituela. Gurekiko indiferentzia existentzialak.

Diane ere ardoari emana dago. Bera bezalako milaka langilek ardoz beteko dituzte patrika hutsak ostiral gau honetan. Elkarrizketa gaseosoa dute. Airean desegiten zaizkie berbak. Ia edalontzitik kanpo pausatzen ditu bere ezpain pintatuak. Badirudi ez dituela karmina eta ardoa nahastu nahi. Badaki sexua eta ardoa ez direla lagun onak. Ezin dut ebitatu: balde urdin bat ur gorritz beteta imajinatzen dut. Batzuetan, alkoholak ideia eferbeszenteak dakartza, idazlea eskizofreniko bihurtzeko.

Asko hitz egin du Maik, eta zerbitzaria azkarra izan da. Janariak ahoa itxita edukitzeko aitzakia eman dit, ia ezer ez dut esan afari osoan. Bera eta gizona joan egin dira. Lixibarekin zer ikusirik ez duen lurrin bat utzi du pasilloan zehar. Hordi nago. Ardo italiarraz baino emakume horretaz. Diane.

Maik agur esan dit. Gaurkoz, bete du Excel taulako azken karratua. Nik, ordea, nire bizitzaren zirriborroari jarraitzen diot. Astiro noa kaleetan zehar. Noraezean... gustuko dut. Kaleak maitalez beteta daude; kantoietan ezkututzen, faroletan babesten. Diane ere, maitale lanetan ibiliko da. Baina berak nahiago ditu kale bertikalak. Poleetatik zintzilikatuak. Ez nuke egin behar, baina inguruak ez du laguntzen. Eta txikitan txiribitarekin baino errazagoa da orain maitasuna. Mugikorraren pantaila petaloa baino suabeagoa. «Maite nau» edo «ez nau maite», baina «etorriko da» ala «ez da etorriko». Etorriko da; badakit. Whatsappetik gonbidatu dut norbait.

Rokeroa portaleko atearen aurrean zain dago. Ilezko hodei bat dauka buruaren gainean, eta Cortazarren «*yo me maté en esa curva*» aurpegian. Gizon ederrak gustatzen zaizkit. Dandyak edo hartzak. Seduktoreak edo indartsuak. Ez daukat erdibiderik. Dandya aukeratu dut, hartza ez delako minutu bateko gizona. Hartza edo Gari Drake (edo marra-dun jertseen pirata edota labarretako arkitektoa). Honetaz, beste liburu bat idatzi beharko nuke. Baina oraingoz, dandyarekin konformatu naiz.

Kamiseta zikindu dit begiradarekin. Cheti gamelua-ren begiek egiten zioten modura. Bera ez da Chet, eta ni ez naiz Diane. Baina biok gustukoago dugu fikzioa. Beti moldatu gara ez garen horren itxurak egiten. Beraz, ez daki beste batekin sartu dela igogailura. Ez daki idazlearen gorputzean, bebarruak garbitzen dituen emakume bat dagoela. Beharbada, jakingo balu, ez litzatekeelako barruan sartuko. Ez gara konturatu horrelakoak garela. Klasistak, esan nahi dut.

Ardoa, txistua eta esaten ez ditudanak nahasten zaizkit barruan. Likido nazkagarria. Igogailuko maitasuna baino likidoagoa. Txistu bola batean bota dut lurrera. Bihar garbituko du Dianek. Kontrako eztaaritik joango zait bere balde urdineko ur zikina. Baina kontzientzia txarra ere likidoa delako, laster ahaztuko dut. Seigarrenera heldu orduko.

Rokeroak mikrofonoari eusten dion modura besarkatu nau. Biolentoa eta garratza da. Rock Starraren luzapen bat baino ez naiz. Zein aproposa den entxufearen analogia erlazio batzuk azaltzeko. Ez da elegantea, baina ez dut deskargarik sentitu. Berari, ordea, kable zuriak ateratzen zaizkio

burutik. Rokero zaharrei ere ilea urdintzen zaie, aizu. Onartu beharko luke heldu zaiola bertsio akustikoetako ordua, baina bere gitarra elektrikoa naizela uste du. Ispiluan begiratzen du bere burua. Gustuko du. Hala ere, nire gorputza harena baino ederragoa da. Ez, ordea, autoestimua: sabaian dagoen fluoreszenteak bezala itsutzen nauen gaitza. Zergatik behar dut beste bat izan? Ezer ez denaren gorputzean baino ezin delako kabitu Diane.

Sabaiari so nago. Ez dira berdinak larrualdi guztiak. Batzuetan, umedadeak daude, besteetan arrakalak eta gaurkoan, itsutzen nauen neoizko argia. Oso aproposa. Hau ez baita maitasuna. Ezta, sexua ere. Lizunkeria eta beldurraren arteko sentsazio infantil bat bilatzen dut. Sexuaz ez nekiena desiratzen nuen modura. Frustrazio horretan oinarritzen dira nire harremanak, eta badakit zulo horrekin aterako naizela hemendik. Baina, gaur, horrek ez du ardura. Gaur, Diane naiz eta esekitokietako argiak piztuta sumatzen ditut. Gezurrezko lixibak hits bilakatu ditu gortina atzeak.

Gelditu da plazer bertikala eta rokeroa eta biok aurrez aurre egin dugu. Haren barrean ere, esekitoki bat dakusat. Ezpain ertzean hasi eta beste aldean bukatzen den soka. Bazen garai bat bertan esekitzen zizkidala tristura beste poz. Lizunkeria adina hotz. Maite nuen irribarre hura. Baina gaur, ezpain horiek eskarateetako merkealdiak iruditu zaizkit. Ezetz esan diot. Ez etortzeko. Atean giltza sartzean, arma batekin apuntatu dut nire habia. Horixe egin berri dugu igogailuan. Horixe da guretzat sexua. Umetoki eraila. Bakarririk sartu naiz 6b-ko habia antzuan. Eta orduan, eutsi egin diot beste plazer horri: nire bizitzaren errealitatetik salbatzen

nauen gezurrari. Ordenagailu aurrean eseri naiz eta idatzi egin dut:

Dianek itzal bat dauka. Bakarrik dagoenean ere, edonora jarraitzen diona. Begiak ertzetaraino mugitzen ditu bebarruko zokondo ilunak garbitzen dituenean. Batzuetan, seigarreneko idazlearekin egiten du topo, itsumustuan. Beste batzuetan, haren ate azpitik ateratzen den blues urdina sartzen zaio baldean, eta, askotan, ezkongabearen katuaren oinatzak garbitzen heletzen da haren atera. Halakoetan, idazlea bera dela sentitzen du. Diane ez delako denek uste duten emakumea.

Altua naiz idazten dudanean. Bart, Dianek eraman dituen takoirik gabe. Beharbada, neu ere, ez naiz uste duten emakumea. Neure ipuinetan pertsonaia sekundarioa izatera ohituta nago eta. Zein emakume garen deskubritu ezinik erori zait bola gorria leihoaren azpira. Itsasoak eutsi dio zirkuluerdia itotzeko ahaleginari. Eta eguzkia naufrago bilakatu denean, eguna zabaldu zait. Teklatu aurrean jarraitzen dut. Oraindik, zulatuta. Ez sexuak, ez letrek, ezta egunsentiaren mirari laranja ez du hutsa betetzen. Gosaldu beharko nuke. Beharbada, horrek aseko ninduke. Baina ezkaratzera joan beharrean, saguari jarraitu diot, eta honek ere Dianengana eraman nau. EITB digitalean ikusi ahal izan dut. Albisteetan. Jode, nola ez dut ezagutu! Gure gremio endogamiko honetan! Haren baldea baino odol urdinagoa dugunon artean! Gure bebarruaren garbitzailea idazlea da!

Seigarreneko idazlea deitzen den nobela plazaratu omen du.

Atea jo dute, eta zutunik jartzeak zorabiotik atera nau. Diane da. Errealitatearen eta fikzioaren kointzidentzia bat.

Ez zait arraroa iruditu, bien arteko distantzia ehun metro eskaseko izaten zaigulako egunero.

—Zutaz idatzi dudala esan nahi nizun —bota dit egun onak eman gabe.

Bere mantala baino zuriago nago. Izara zuria. Agian, beste ipuin bat hasten ari da. Ez diot aitortu nik ere beraz idatzi dudala. Baina nire barruan Dianek eta idazleak bat egin dutela sentitu dut. Aukera bat eman diet nire pertsonaia guztiei. Gezurrak eta egiak eskua eman dute. Horixe ere bada literatura; norberarekin bakeak egitea, alegia.

—Zuk bezalako neska batek merezi zuen nobela bat —esan dit, rimelez betetako begiak jausi zaizkion bitartean. Gero, joan egin da. Ez dauka balde urdina esku artean eta gure ipuinari zerbait falta zaiola iruditu zait.

Atea itxi eta nengoen lekura bueltatu naiz. Aurkitu dut gure ipuinari falta zaiona: ordenagailua balde urdin bat da.

Idatzitakoa, zikina. Blues tristea. Bakerren heroina. Es-toldetatik botatzeko modukoa.

Desinfektatu beharreko literatura likidoa.